

Alegiako txistulariak

Laureano Zubeldia Gorostidi (Txanbolin)

- Alegian jaio zen, 1881/12/30ean.
- Alegian hil zen, 1960/02/16an.
- Lanbidez zapataria zen.
- Mende hasierako bandan jotzen zuen bonbardinoa.
- Prozesioetan bere bonbardinoarekin laguntzen zuen.
- Ospakizun, jai-egun eta igande arratsaldeetan doinu bereziekin, besteen artean, alaitzen zuen Alegiako plaza; besteak beste, honako bandako pieza hauek jotzen zituen: polkak, baltsak, mazurkak, habanerak, “Danubio Azul”.

Rikardo Intxausti Larrañaga

- Alegian jaio zen, 1895/06/03an.
- Alegian hil zen, 1971/09/30ean.
- Aita Alegiakoa eta ama Aldabakoa zituen. Seme bakarra zen.
- Tolosako Eskolapioetan egin zituen ikasketak: oinarrizkoak eta Merkataritza ikasketak.
- Txistua Isidro Ansorenarekin ikasi zuen; gainera, pianoa, okarina, dultzaina... jotzen zituen.
- Etxean denda zuten: gozotegia, argizaritegia...
- Tolosako Laskibar prokuradorearekin egon zen lanean. Gero, antzeko lanak egiten zituen berak.
- Manuela Arregi Jauregirekin (Legorretakoa) ezkondu zen eta Legorretara joan zen bizitzera. Udaleko idazkaria izan zen.
- 1936an, beste idazkari bat jarri zuten, eta familia amaren etxera joan zen bizitzera. Miseriak pasatu omen zituzten.
- Alegiara itzuli ziren 1938an (aita itota hil zenean), eta gurasoen denda eta beste eginkizun batzuk hartu zituen bere gain.
- Argazkilaria zen, kudeaketa lanak egiten zituen, lurrak neurtu eta basoak kubikatu ere egiten zituen. (Ixiar alabak dioenez, ahal zen guztia eginda ere nahiko lanak izaten ziren).
- Legorretan eta Alegian ere antzerkiak egiten zituzten, Zapelekin, Altzoko Pedro Berakoetxearekin...
- Pedro Jose Iguainen omenaldia prestatzen ibili zen.
- Patxi Urteagaren ondorengoa etorri arte, organoa jotzen aritu zen Alegiako parrokian.
- Alegian txistua jotzen aritzen zen eta txistua irakasten ere bai; besteen artean, German bere semeari.
- Inguruko herri askotan jotzen zuten txistua festetan: Abaltzisketan, Orexan, Urkizun, Albisturren, Altzon, Amezketan, Baliarrainen, Orendainen...

German Intxausti Arregi

- Legorretan jaio zen, 1926/08/21ean.
- Alegian hil zen, 2004/02/12an.
- Eskolapioetan ikasi zuen: merkataritza, Marrazketa (Artes y Oficios), frantsesa.
- Txistua jotzen aitarekin eta Isidro Ansorenarekin ikasi zuen.
- Txistua, pianoa, dultzaina, okarina... jotzen zituen.
- Afrikan egon zen soldadu, Lazkao Txikirekin batera.
- Denda-taberna zuten etxean eta han egiten zuen lana.

- Argazkilaria ere bazen, eta ezkontza eta ospakizun askotan izaten zen txistua jotzen eta argazkiak egiten.
- Aitaren bideari jarraitu zion kudeaketa lanetan eta neurketa eta kubikazioak kalkulatzeko.
- Herriz herri ere, aita bezala ibiltzen zen. Amezketan eta Abisturren 60 bat urtetan ibiliko zen.
- Amezketako batzuei txistua irakatsi zien, baina ez zuten jarraitu.
- Idatzi zituen obrak:

Ostegunekoa	tx/tx/sb	Hondarribia	tx/tx/sb	Txintarriaren hileta [arreglo]
Koldo	tx/tx/sb	Aldaba txiki	tx/tx/sb	tx/tx/sb/at
Fa-txiki	tx/tx/sb	Oria	tx/tx/sb	Zortzikoa [arreglo] tx/tx/sb/at
Mirentxu	tx/tx/sb	Udazkenean	tx/tx/sb	Oria [arreglo] tx/tx/sb/at
Eduarne	tx/tx/sb	Intxurre	tx/tx/sb	Aldaba txiki [arreglo] tx/tx/sb/at
Udaldetakoa	tx/tx/sb	Pipiri	tx/tx/sb	Pipiri [arreglo] tx/tx/sb/at
Mañoli	tx/tx/sb	Miel txiki	tx/tx/sb	Miel txiki [arreglo] tx/tx/sb/at
Ikak	tx/tx/sb	Bitxistu danbolaria-tx/tx/sb		Kimu berri [arreglo] tx/tx/sb/at
Aloñatik etxeruntz tx/tx/sb				Xamot [arreglo] tx/tx/sb/at

Iturriak: Arreba, Ixiar Intxausti; ERESBIL.

Tomas Iraola Mendia

- Alegian jaio zen, 1927/09/15ean.
- Alegian hil zen, 1999/09/24an.
- Lehen ikasketak Alegian egin zituen eta, gero, Eskolapioetan jarraitu zuen. Gaueskolan ere ibiltzen zen Luxiano Arangurenekin.
- Talleres Tolosan sartu zen, ikasteko, eta han jarraitu zuen amaiera arte.
- 1950 inguruan hasi zen dantza-munduan.
- Lanetik ateratakoan, Tolosako Korazonistetara joaten zen, dantza ikastera.
- Taldea sortu zuen Alegian.
- Txistua jotzen ere ikasi zuen, gero irakasteko.
- Dantza eta txistua irakasten hainbat herritan ibili zen: Legorretan, Abaltzisketan, Altsasun, Ordizian...
- Mendizale porrokatua izan zen.

60. hamarkada oso oparoa izan zen, eta hori Jose Gastesik azaltzen du oso ondo
 “Txintxarri abesbatza, 1960-2000, ALEGIA” liburuan 16 eta 17 orrialdeetan:

...

“ 60ko hamarkadan Alegian hasi zen mugimendua oso emankorra izan zen: musika eta euskal dantzen irakaskuntza, alegia; antzeko astindurik ez zela Gipuzkoako herri askotan gertatuko pentsa daiteke, eta are gutxiago bi mila biztanle baino gutxiagoko herri batean.

...

Baina txistu eta euskal dantzen irakaskuntzaren suspertzailea Tomas Iraola (“Tomax”) izan zen. Hainbat eta hainbat urtetan lan paregabea egin zuen. Euskal dantzetarako iaio aparta zenez, irakasle lanetan ibili zen eta, ez hori bakarrik, txistua jotzen ere alegitar askori irakatsi zion. 1966an, Don Martin Iturbek Axun Orbegozo eta Mila Begiristaini solfeoa irakatsi zien, biak ere musikarako oso trebeak; 1967an, Tomaxek Don Martinen erreleboa hartu zuen.

Geroago, Axunek eta Milak, 1971tik 1981era solfeo eta txistu irakaskuntzari jarraipena eman zioten, lan horrek bere oparotasun bete-betea hamar urte horietan lortuz.”

[Ikus argazkia eta ikasleen zerrenda](#)

Axun Orbegozo Senperena

- Alegian jaio zen, 1957/01/28an.
- Magisteritzan Diplomatua eta " Ciencias de la Educación " edo "Pedagogia" delakoan lizentziatua. Irakaskuntzan dihardu.
- Alegian ikasi zuen musika, D. Martinekin hasi, Tomaxekin jarraitu eta azterketetarako D. Bizente Aranbururekin prestatu zen. Solfeoa, Koraleko bi ikasturte eta txistua ikasi zituen.
- Berak ikasitako irakasten aritu zen 70eko hamarkadan.
- Honela dio berak orduko giroari buruz: *“gure etxean betidanik musika entzuteko ohitura handia izan da; irratia beti ezagutu dugu, eta tokadiskos bat ere nahiko “azkar” erosi zen gure etxean. Bestalde, aitek panderoa jotzen zuen trikitixa bikoteetan eta amak ere irratian entzundako abestiak abesten zizkigun eta abesti askoren letrak ezagutzen zituen. Zazpi urterekin herriko dantzari taldean sartu eta handik zuzenean txistua jotzen ikasi nuen. 11-12 urterekin Txintxarri Abesbatzan abesten hasi ginen eta horretan jarraitu alaba izan arte.”*

Mila Begiristain Irulegi

- Alegian jaio zen, 1957/11/05ean.
- Alegian ikasi zituen solfeoa, txistua jotzen eta koruan abesten.
- Lanbidez irakaslea.
- Honela kontatzen du milak urte haietan bizitakoa: *“Nire musika inguruko ibilbidea Alegian hasi zen 60ko hamarkadaren amaiera aldera dantzari taldean eta laster solfeoko lehen nozioak hartzean, Martin Iturberen eskutik. Ondoren, Tomas Iraola hasi zitzaigun txistua jotzen irakasten, berak ikasitakoa guri irakatsiz. Berak ez zekien solfeorik eta hasieran zenbakien bidez ikasten genuen txistuari zein zulo itxi behar genuen. Horrela hasi ginen koadrila polita festarik festa, dantzan, txistua jotzen...; geroago, Balentxi ere etortzen zitzaigun eta hark irakatsi zigun gehiago... eta poliki-poliki geu joan ginen partiturak ikasten eta gazteagoei irakasten. 16 edo 17 urterekin solfeoko 5 ikasturteen azterketak ere prestatu genituen Bizente Aranburu apaizaren laguntzaz. Txintxarri abesbatzan noiz hasi nintzen ez dut gogoratzen, betidanik izan naizela bertako kide iruditzen zait. Posible da 12 edo 13 urterekin hasi izana.”*

[Ikus argazkia eta ikasleen zerrenda](#)

Jose Gastesiren liburuarekin jarraituz:

“Axun eta Milaren ondoren, Rosa Malen Agirre, Karmele Lasa eta Garbiñe Orbegozo ibili ziren lan horretan eta gero Elena Alustiza, Maitane Balerdi, Mertxe Jenaut eta Itziar Zabalak hartu zuten erantzukizun hori.”

Rosa Malen Agirre Mujika

- Alegian jaio zen, 1963/04/17an.
- Solfeoa eta pianoa jotzen ikasi zuen Alegian, D. Bizenterekin, Mari Pazekin eta Loreto Fernandezekin. Azterketak egitera Donostiara joaten ziren.
- Txistua jotzen ere Alegian ikasi zuen, Mila Begiristain eta Axun Orbegozorekin.
- Txistua irakasten aritu zen Alegian.

Karmele Lasa Larrarte

- Alegian jaio zen, 1963/07/15ean.
- Inaxio Begiristainekin eta Tomas Iraolarekin hasi zen solfeoa eta txistua ikasten eta Axun Orbegozorekin eta Mila Begiristainekin jarraitu zuen.
- Pianoa jotzen ere ikasi zuen D. Bizente Aranburu apaizarekin.

- Gitarra zuen instrumenturik gustukoena baina garai haietan ez omen zegoen ikasterik Alegian, baina bere kabuz zerbait ikasi omen zuen.
- Alegian musika irakasten aritu zen, Garbiñerekin eta Rosa Malenekin batera.

Garbiñe Orbegozo Senperena

Ikus Abesbatzak eta Zuzendariak arloan.

Itziar Zabala Ansorena

- Tolosan jaio zen, 1964/05/13an.
- Irakasle-Eskolako titulua eta Euskal Filologian lizentziatura ditu. Bigarren Hezkuntzako irakaslea da.
- Musika, solfeoa eta pianoa Alegian ikasi zituen, D. Bizenterekin, Ordiziako Mari Pazekin eta Loreto Fernandez Imazekin, eta Donostiako kontserbatorioan egin zituen azterketak. Txistua Alegian ikasi zuen, Axun Orbegozorekin eta Mila Begiristainekin.
- Maitane Balerdirekin eta beste batzuekin batera hurrei musika irakasten ere aritu zen Alegian.
- Etxean zegoen ikasteko zaletasunak eragin omen zion musika ikastera eta, nola ez, garai hartan Alegian zegoen musika-zaletasunak bidea erraztu zion.

Maitane Balerdi Urrestarazu

- Alegian jaio zen, 1965/05/01ean.
- Musikako irakaslea da.
- Solfeoa ikasten Inaxio Begiristainekin hasi zen Alegian eta D. Bizenterekin eta Loreto Fernandezekin jarraitu zuen.
- Txistua ere Alegian ikasi zuen, Mila Begiristain eta Axun Orbegozorekin.
- Pianoa jotzen eta gitarra jotzen ere ikas izuen.
- Txintxarri abesbatzako kidea izan zen.
- Txistua irakasten aritu zen Alegian.

Elena Alustiza Elola

- Alegian jaio zen, 1967/09/17an.
- Solfeoa Loreto Fernandez Imazekin ikasi zuen, azkeneko urtea Juan Ignazio Ugartemendiarekin.
- Txistua jotzen Milarekin, Karmele Lasarekin eta Axunekin ikasi zuen. Gero, Tolosako Txirritarekin ere ikasi zuen.
- Solfeoa eta txistua irakasten aritu zen Alegian.
- Gitarra jotzen gaztetxean ikasi zuen eta panderoa jotzen bere kabuz.
- Urtean zehar txistua jotzen 7 bat ekitaldi egiten dituzte Alegian. Inguruko herrietan ere jarduten dira: Amezketa, Orendainen, Altzon, Ikaztegietan. Horrez gainera, hainbat ezkontzatan, herriko dantzariekin...

Mertxe Jenaut Elola

- Donostian jaio zen, 1968/09/16an.
- Hiru urtez solfeoa eta txistua jotzen ikasi zuen Alegian.
- Orduko txistulari taldearekin ibili zen txistua jotzen Alegian eta inguruko herrietan.
- Ondorengo gazteen irakasle izan zen, aurrekoak bezala.

Jose Gastesirekin jarraituz:

“ ...

Gustua ematen zuen hainbeste haurrez osatutako txistulari talde haiek urtero Alegiako kalejiratan ikusteak,... “Dotrinetxea”n eta herriko plazan ospatzen ziren hainbat haur, nerabe eta gaztek egindako euskal dantzen emanaldiaz gozatzeak. Horrek guztiak guregan harrotasun sentipena sorrarazten zuen...

...

*Alegiako mugimendu horretan bazen ezin ahatz daitekeen osagarri bat: txistuak herrian bertan egiteak lan horretarako eskaintzen zuen erraztasuna; zeregin eskerga horretan, **Xefe Balerdi, Tomax Iraola eta Inaxio Begiristain** ibili ziren.”*

Gaur egun, Alegiako ekitaldietako txistulariak Elena Alustiza, Izaskun Lopetegi eta Rikardo Intxausti dira. Urtean behin, “Karmenetan”, horiez gain, beste batzuk ere parte hartzen dute.

Elena Alustiza Elola

Goian aipatu da.

Izaskun Lopetegi Mendizabal

- Alegian jaio zen, 1970/01/23an.
- Lanbidea: antzezlea, administraria, makillatzailea.
- Alegian Axunekin eta Milarekin ikasi zuen txistua jotzen. Geroago, Tolosako Txirritarekin ere aritu zen ikasten.
- Gitarra ere jotzen du; Alegian egondako sevillar batekin eta Javi Navarrokekin ikasi zuen.
- Urtean zehar txistua jotzen 7 bat ekitaldi egiten dituzte Alegian. Inguruko herrietan ere jarduten dira: Amezketan, Orendainen, Altzon, Ikaztegietan. Horrez gainera, hainbat ezkontzatan, herriko dantzariekin...
- PANTZAR (Maite Agirreren kolektiboa) antzerki taldearekin ere aritu zen txistua jotzen.
- Alegiako TTAPA antzerki taldearen zuzendaria da.

Rikardo Intxausti Galparsoro

- Alegian jaio zen, 1964/03/20an.
- Solfeoa D. Bizenterekin ikasi zuen 5 urtez eta pianoa jotzen ere bai.
- Txistua jotzen Mila eta Axunekin eta aitarekin (German Intxausti) ikasi zuen.
- Atabala jotzen du. Lehenengo, aitari laguntzen zion eta orain, Izaskunekin eta Elenarekin batera jotzen du herriko ekitaldi guztietan.
- Azkeneko bi urtetan ikasten ibili zireneko taldea biltzen saiatu da eta urte oro biltzeko asmoa dute.
- Orduko taldearekin herriz herri ibili ziren txistua jotzen.

Atabalariak

Alegian txistulariak egon direla ikusten dugu, asko gainera, eta, horiekin batera, atabala jotzen ibiltzen ziren pertsonak ere bat baino gehiago dira, zehaztasun handietan sartu gabe, hona hemen horietako batzuk (nor bait ahaztuta geratu bada, barkatuko ahal du):

- Alberto Gaztañaga (Abitto)
- Joxe Mari Zabala
- Zapel (Berakoetxea) deitzen zutena

Gaztetan German Intxaustirekin ikasten aritutakoak ere badira. Eskolatik atera eguerdian eta 12:00etatik 13:00era joaten ziren ikastera.

Alegian eta inguruko herrietan ibiltzen ziren German eta Rikardorekin, festa eta ospakizunetan. Festetan, baserriz baserri ere ibiltzen ziren txistua eta atabala joz.

Amezketako plazan, jai arratsaldeetan, jotzen zuten igandero.

- Juan Aranburu Oiarzabal (Juantxo)
- Jose Manuel Oiarzabal Aizpurua
- Karlos Jauregi Zubillaga

Alegiako festetan, “Karmenetan”, txistulari talde handia biltzen da Alegian zehar txistua joaz festak alaitzeko.

[Ikus 2007ko taldea.](#)